

## **APARTEKO OSOKO BILKURA**

**2015.07.07**

Tolosako Udaletxean, 2015eko uztailaren 7an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da aparteko osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 7 de julio de 2015, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión extraordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:  
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Beloso  
Patxi Amantegui Zubiria  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga  
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente  
Lore Agirre Zipitria  
Onintza Lasa Arteaga  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Igor Ezenarro Balda  
Maria Lasa Arruabarrena  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

### **Eguneko gai zerrenda**

- 1.- Osoko bilkuren maiztasuna
- 2.- Batzorde informatiboak sortzea eta

### **Orden del día**

- 1.- Periodicidad de las Sesiones Plenarias
- 2.- Creación y composición de las

osatzea.

3.- Organu kolegiatuen udal ordezkariak izendatzea: Mankomunitateak, Erakunde autonomoak, Sozietate merkantilak, Asoziazioak, e.a.

4.- Alkate dekretu hauen berri ematea:

- Gobernu Batzordeko partaideen izendapena.
- Alkateordeen izendapena
- Batzorde informatiboetako lehendakarien izendapena.

5.- Pertsonal ebentualaren ezaugarriak eta lan sariak xedatzea.

6.- Erabateko dedikazioz aritu behar dutenen eta gainontzeko Korporazioko partaideen asistentzi, indemnizazio eta ordainsariak xedatzea.

Comisiones Informativas

3.- Nombramiento representantes de la Corporación en los Órganos Colegiados: Mancomunidades, Organismo Autónomos, Sociedades Mercantiles, Asociaciones, etc.

4.- Dar cuenta de los siguientes decretos de Alcaldía:

- Nombramiento de los miembros de la Comisión de Gobierno.
- Nombramiento Tenientes de Alcalde.
- Nombramiento de las Presidencias de las Comisiones Informativas.

5.- Determinación del número, características y retribuciones del personal eventual.

6.- Régimen retributivo y dedicación de los miembros de la Corporación con dedicación exclusiva e indemnizaciones y dietas del resto de los miembros.

Alkateak ongietorria eman die herritarrei eta Udal korporazio berriari, bereziki kargu hartu duten zinegotzi berriei.

*“Gaur egingo dugun legealdi honetako lehenengo osoko bilkurak ez dauka gai zerrenda luzea, baina gaur erabakiko dugunak garrantzi berezia izango du udalak kudeaketa eraginkor bat egin ahal izateko, bere barne antolaketak garrantzia baduelako.”*

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación, se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

#### **1.- Osoko bilkuren maiztasuna**

#### **1.- Periodicidad de las Sesiones Plenarias**

Toki Erregimeneko oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 legearen 46.2 artikulua (apirilaren 21eko 1999/11 legeak aldatu duena), ohizko bilkurak gutxienez bi hilabetetik behin egitea xedatzen du.

Aipatu bilkuren maiztasunari buruz Alkateak egin du proposamena, hau da, hileko azkeneko asteartean bilkura horietako bat egitea.

Partehatzeak:

... Ibai Iriarte San Vicente, EH BILDU: “Eskertuko nuke, dokumentazioaren bidez jakin dugun ordu aldaketa, ordu erdi bakarrik ez bada ere, baina gure agendetan egokitu behar genuena, beste modu batean jakinarazi izatea. Zenbaitek galdetua zuten zer ordutan etorri behar zuten eta 19:30 esanda genuen. Hasiara besterik ez da, arrazoi duzu gaurko oinarriak 4 urtetan garrantzia dutela, nahiz eta gauza gutxi direla erabakitzen direnak, badu bere garrantzia, batez ere jarreretan; iruditzen zaigu dokumentazioetatik jakin baino, 3 aste baino gehiago pasa dira udala eratu zenetik, ekaineko 13tik, jakinarazpena beste modu batean egin zitekeela.

*Bestalde, batzordeei dagokionez, saiatu gaitzen batzordekideekin adostea ordua eta egunak. Beraz, zentzu horretan abstenitu egingo gara, uste dugulako formak beste batzuk izan behar zirela, ordua aldatzerakoan, beste modu batzuetan jakiteko eskubidea genuelako.”*

... Alkateak: “Goizean luzatu dizut EH BILDU taldean inork zailtasunak izango balitu plenoak ordu honetan eta asteartean izateko, inolako arazorik gabe jarriko genukeela pleno eguna denoi ondo etortzen zaigun egun eta orduan.”

Hortaz, Udaltzarak, gehiengoz, 10 boto aldekoekin EAJ-PNV eta PSOE alderdikoarenak eta 7 abstentzio EH BILDU alderdikoarenak,

## ERABAKI DU

**Lehen.-** Ohizko osoko bilkura Pleno Aretoan hilean behin egitea, azkeneko asteartean, iluntzeko 8etan, salbu jaieguna baldin bada. Azken kasu honetan Alkateak beste egun baterako antolatuko du Osoko Bilkuraren saioa.

**Bigarren.-** Alkateak ahalmena izatea, arrazoituta, Osoko Bilkuraren eguna eta ordua aldatu ahal izateko, eta, batik bat, opor egunak direlako, abuztuan, Eguberrietan eta Aste Santuan.

### **2.- Batzorde informatiboak sortzea eta osatzea.**

### **2.- Creación y composición de las Comisiones Informativas**

Udal idazkariak irakurri du alkaearen proposamena, batzorde informatiboaren sortzearena eta hauen osaketarena : batzorde bakoitzak 3 kide EAJkoak, 2 EH BILDUkoak eta 1 PSE-EEkoa izango ditu.

Partehartzeak:

... Ibai Iriarte San Vicente, EH BILDU: “Lehenik eta behin, duela 3 aste, hauteskunde ostean,

*Udal Gobernu aldaketa egiten laguntzeko dokumentua entregatu genuen gure prestasun osoa emateko. Denok daukagu erantzukizuna Tolosa ahalik eta indartsuena lortzeko, Tolosa Tolosaren alde jarraitzeko eta argi genuen, gobernu aldaketari dagokionez, eskualdaketa egiteko informazioa bideratu egin behar zela eta zentzu horretan 4 urte hauetan egindako lanen berri eman eta laguntzeko prestasuna osoa adierazten dugu; zentzu horretan nahi duzuenean deitu.*

*Guk batzordeekiko zenbait hutsune ikusten ditugu:*

*Hirigintza, Azpiegiturak eta Obrak bereiztea ez zaigu oso logikoa iruditzen, eskutik dihoazelako neurri batean. Tolosa, hurrengo urteei begira, ikusten dugu zaharkitzen ari zaigun herri bat dela, auzune asko egiten ari dira 50 urte, ITEak gehiago behar dira, eta hor daude birgaitzea, obrak eta mantenuak; gero eta indarra gehiago hartzen dute. Zentzu horretan, obrak Hirigintzatik edo Azpiegituratik banatzeak sor ditzake zenbat arazo. Gainera, azpiegiturak berriak egitean, gure esperientzien arabera, eta zer esanik ez Jokin Azkuek hirigintzan urte asko daramanak, azpiegiturak sartzan direnean, obrak eta zerbitzu berriak sartzan ditugu; uztartuta dihoazten gauza asko dira, eta banaketa horrek departamentua banatzen du eta iruditzen zaigu zenbait disfuntzio sortzeko aukera izan dezakeela; ez zaigu egokia iruditzen beraren banaketa.*

*Ekonomiaren sustapenari dagokionez, argi daukagu herri indartsu bat nahi dugula ekonomikoki, eta herri indartsu hori, Apatta poligonoa osatzen dugun udalerririk kontutan hartuta, eskualde indartsu baten bidez egingo dugu. Eskualde indartsu baten bidetik lortuko dugu Tolosa indartsu bat eta Tolosa indartsu baten bidetik lortuko dugu eskualde indartsu bat, baina uztartu egin behar dira. Orain dela 20 urte Tolosaldea Garatzen sortzen da; 28 udalerririk adostu egin zuten erakunde hau sortzea eta honen oinarria eskualde indartsua eta, eskualde buru Tolosa den neurrian, Tolosa indartsu bat sortzea maila sozio ekonomikoan. Sortu zen langabezi kontestu indartsu batean; papergintzan krisia ere gainean genuela, eta iruditzen zaigu tresna inportantea daukagula Tolosaldea Garatzenen. Gainera, ikusten dugu bertatik masa kritikoa kostatzen bazaigu eskualdean izatea, nahiz eta 57 poligonoa industrialak izan eta nahiz eta ia 1000 enpresa izan, askotan kosta egiten da enpresen arteko sinergia lortzeko masa kritiko hori lortzen, eta beste eskualde batzuk, Goierri eskualdea bereziki, lotzen saiatzen ari gara beraiekin elkarlanean, Tolosak masa kritiko hori lortzeko zailtasunak izan ditzakeelako. Horregatik iruditzen zaigu ekonomiko sustapen batzorde honek, jakin gabe zer lan egingo dituen, duplizitateak sortuko dituela, kontutan izanda enpresa sailak lau langile dauzkala Tolosaldea Garatzenen, ekintzaile sailak ere bere langilea dauka eta beraien bidez co-working espazioa Mondragon Unibertsitatearekin batera garatzen dago; enpleguan ere beste bi lagun daukagu. Beldurra ematen digu bikoiztasunak emango ez ote diren. Informaziorik gabe ez dakigu ekonomiko sustapenaren atzean zer planteatzen duzuen baina beldurra ematen digu, horretarako badauzkalako tresnak, badauzkalako 19 langile momentu honetan, eta horretarako badagoelako Tolosaldea Garatzen eta Lehiberri zentroa. Zentzu horretan kontuz ibili beharko genuke duplizitateak ez sortzen eta dauzkagun baliabideak hoberen erabiltzen.*

*Hirugarrenik, Gazteria, Kultura eta Festak batzordeari dagokionez; 3 batzorde potolo dira; Kulturak eta Festak Tolosan garrantzi izugarria daukate; herri dinamikoa gara, kulturaz josia, ekitaldiz josia; festak zer esanik ez, eta zentzu horretan, ikusten genuen, Gazteria gainera. Askotan, gazteria politikak planteatzen direnean, akats bat egiten dugu; badirudi gazteok soilik ondo pasa nahi dugula, eta gure bizitzak badauzka beste oinarri batzuk; prekarietatea desenplegua, etxebizitza falta; gazteriak berak badauka pisu nahikoa eta arazo propioak erantzuteko, eta horretarako departamentu propioa izan behar du. Eta zentzu berdinean, kultura eta festak. Ez dago esan beharrik kulturalki zer herri garen eta festari dagokionez, san joanak aparte, Iñauteriak eta auzoetako festak daukagu. Karga inportantea daukate eta*

*iruditzen zaigu hirurak berezita joan beharko luketela.*

*Bestalde, duela 4 urte Migrazio batzordearen inguruan zuek planeatzen zenuten non sartu eta batzorde propioa izatea, eta oraingoan harritzen gaitu batzorderik ez aipatzea. Ez dakigu non kokatzen den eta dudak sortzen dizkigu, nahiz eta jakin Tolosaldea Garatzenean teknikaria daukagula; baina inportantea iruditzen zaigu hemen ere erreflexua izatea, departamentu propioa izatea.*

*Horretaz aparte, argi daukagu ere, nahiz eta ez dakigun zer formatuan izan behar duen, baina orain dela 4 urte zuek ere aipatzen zenuten bezala eta saiakera egin dugun azkeneneko 4 urteetan bezala, lanketa desberdinak eginez, normalizazio eta bizikidetzaren inguruan. Zuek orain dela 4 urte batzordea eskatzen zenuten. Ez dakigu batzordea izan behar duen horretarako tresna, baina bai iruditzen zaigu alderdi politikoen mailan eratzea egokia izango litzatekeela; bizikidetzaren sustatzeko herritarren lan talde bat osatuta dago eta bere fruituak ematen ari dira. Hurrengo 4 urteetan apustua egin beharko genuke alderdi politikoen artean, behintzat udalean ordezkariak dugun alderdien artean lanketa horri ekiteko. Ez dakigu batzorde formatuan zuek batzorde izaera izatea planteatzen zenuten. Faltan botatzen dugu ez ikustea bertan eta horregatik aktan jasotzea nahi genuke.*

*Beraz, gure bozka abstentzioaren bozka izango da arrazoi hauengatik.”*

- ... *Alkateak “Argitzen saiatuko naiz egin ditugun aldaketa horiek non oinarrituta dauden eta uste dut honekin zuk planteatuko zalantzak horiek erantzungo ditudala.*

*Hirigintza eta Azpiegiturak, alde batetik, eta Ingurumena, Auzoak, Obrak eta Zerbitzuak, bestetik: obrak eta zerbitzuak berez oso elkartuta daude, gehien bat begiratzen badiogu herriko mantenu lanari. Obra sailetik eman izan da beti eta horrek eskatzen du erantzun azkarra.*

*Hirigintzako proiektuak luzeragoko begira dira eta horrek ez du esan nahi hainbatetan hirigintza eta obra proiektuak batera aztertu behar ez direnik. Lehen ere horrela antolatuta izan dira udaletxean eta ez zuen zailtasunik sortu.*

*Bestetik, Ekonomia sustatzeko batzordea sortzearen arrazoi nagusia: kanpaina maiz esan dugu guretzako legealdi honetan izango dela ekonomiaren eta industriagintzaren bultzada hori Tolosan indar lerro nagusienetako bat. Egia da guk eskualde izaera hori ez dugula galdu nahi, inolaz ere; eskualde izaeraren osatze horretan zer ikusi handia izan dugulako; baina badaude industriagintzaren alorrean udaletxearen eskumenak diren hainbat gai; obra baimenak emateko garaian, Tolosako udalerraren eremuan pabiloiak handitzeko, txikitzeko edo egokitzeko baimena emateko garaian, eta horiek lehentasunez moldatu edo tratatu nahi ditugu legealdi honetan. Ekonomiaren sustapenerako lerro nagusietako bat Industriegintza izango da, eta ez bakarria, eta gai guzti horiek batzorde horretan aztertuko dira.*

*Aldiz, Merkataritza sailean, ikusten dut kanpaina garaian alderdi guztiak bat etorri garela, esan dugulako merkataritza sailak behar duela Tolosan atentzio berezi bat edo sail berezi bat: hor kokatzen dugu batzorde hori, Merkataritza, FERIA eta Turismoa: merkataritza derrigorrez turismoarekin lotuta egon behar duelako eta baita Azokekin ere.*

*Beste berrikuntza planteatu duguna, Herritarrekiko Harremanak, Partaidetza eta Informazioaren Gizartea. Hor gobernantzaren gai guztiak sartuko ditugu, kanpaina honetan gardentasunaz asko hitz egin da eta kudeaketa hori nola egin behar den, transparentziaz herritarren harremanaz, eta guzti horrek atentzio partikular bat behar du. Horregatik osatu*

*dugu batzorde berezi bat.*

*Kultura, Festak eta Gazteriaren inguruan esandakoarekin bat nator. Kultura, Festa eta Gazteriak orain arte funtzionatzeko batzorde sail bakoitzak bere batzordea osatzen badu ere, horiek koordinatzeko behar bat ikusten dugu, eta horrela adierazi digute gainera. Eta horregatik, batzorde bat baldin bada ere, independenteki funtzionatzeko ahalmena izango dute, baina koordinazio batekin.*

*Gazteriaren inguruan zeharkakotasun horrekin bat nator eta gai hori zeharkakotasunak nola moldatu behar diren, batzorde desberdinetan, "Herritarrekiko Harremanak, Partaidetza eta Informazioaren Gizartea" horretan erabaki beharko dugu.*

*Migrazioaren inguruan, eta zuk lehen egindako komentarioaren barruan, pentsatu dugu eskualdeko gai potolo bat dela, eta horregatik ez dugu batzorde berezi bat sortu, iruditu zaigulako askoz Interesgarriagoa Migrazioko Tolosaldea Garatzenen dagoen teknikariarekin lanketa egitea.*

*Normalizazio eta bizikidetzaren mahaiaren inguruan egindako proposamena jasotzen dugu; hitz egingo dugu eta pentsatzen dugu adostasun batetara iritsiko garela."*

... *Ibai Iriarte San Vicente. EH BILDU: "Gai askorekin ados egonik; Ekonomiaren sustapena batzordearen inguruan, Industria gaiari erantzuteko pabiloi ttikitu-handitze gai hori planeamendutik bideratu behar da, Hirigintza eta Azpiegitura batzordetik, juridikoki onarpena planeamenduak eman behar duelako eta horretan gaude. SPRIk txostena egina du zentzu horretan.*

*Partaidetza eta gardentasunaren inguruan, pozten naiz leku bat izatea, guretzat oinarri delako partehartzea eta gardentasuna, eta horren erakusle, gobernu aldaketa egiten laguntzeko txostenean jasota dagoen moduan, martxan daukazuen portal irekia: fakturak ikusteko, alkatearen eta liberatuen soldatak; hori denak martxan jartzeko Diputazioaren bidez Gipuzkoa ireki izeneko portala, baita plenoak zuzenean ikusteko ere. Streaming sistemarekin bidez plenoak zuzenean emateko aparatu guztiak martxan daude; gaur hori egitea posible zen. Nahi baduzue batzordetik pasa, baina horiek preparatuta daude.*

*Eta Kultura eta koordinazioarekin ados gaude eta horregatik astero egiten ziren departamentu arteko bilerak. Baina gazteriaz hitz egiten ari garenean, batzorde batean, gazteriaren inguruko arlo propioak garatzen ari garenean, sozio-ekonomikoak adibidez, eta gai zerrenda berdinean egotea festen balorazioa, ez zaigu iruditzen zuzena tratatzea batzorde berean hain gai desberdinak eta baita ere publikoaren aldetik. Eta eskualdeko mailan, migrazio gaian iruditzen zitzaigun inportante zela Tolosako udalean tekniko buru bat egotea koordinazio horren ardurapean eta baita hemengo udal taldeko norbait. Ulertzen dut Tolosaldea Garatzeneko gune horretan zu izango zarela politikoki arduraduna, baina teknikoki zeinek hartuko duen eguneko lanean ardura inportantea da zehaztea Gizarte politikatik joango den edo beste leku batekin garatuko den migrazio saila. Agian, Hezkuntza eta Hizkuntzatik joan liteke beste udaletan bezala, hizkuntzaren bidez migranteak Tolosan hartzen ditugulako. Kontuan hartzeko aipamenak besterik ez ziren eta aipatu beharrekoak gure aldetik behintzat."*

... *Alkateak: "Azpimarratzegatik, Ekonomiaren sustapenaren batzorde hori osatuta dago*

*Industriagintzari begira, udalaren eskumenen kudeaketa errazteko eta bideratzeko.”*

Ikusirik Erakunde Lokalen Organizazio, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onetsi zuen azaroaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuaren 38 eta 124-2 artikuluetan xedaturikoa, hala nola Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 4.1a) artikuluan xedaturikoa, alkateak egindako proposamena bozkatzeko da eta EAJ-PNV eta PSE-EE aldeko 10 botoekin eta EH BILDU alderdiko 7 abstentzioko botoekin, Udalbatzak, gehiengoz,

## ERABAKI DU

**Lehen.-** Ondoren zerrendatuko diren Informazio batzorde iraunkorren eraketa organikoa onestea:

- **BERDINTASUNA**  
Igualdad
- **HIRIGINTZA ETA AZPIEGITURAK**  
Urbanismo e Infraestructuras
- **INGURUMENA, AUZOAK, OBRAK ETA ZERBITZUAK**  
Medio Ambiente, Barrios, Obras y Servicios
- **UDALTZAINGOA, MUGIKORTASUNA ETA SEGURTASUNA**  
Policía Municipal, Movilidad y Seguridad
- **EKONOMIAREN SUSTAPENA**  
Fomento Económico
- **MERKATARITZA, FERIAK ETA TURISMOA**  
Comercio, Ferias y Turismo
- **HIZKUNTZA POLITIKA ETA HEZKUNTZA**  
Política Lingüística y Educación
- **GIZARTE POLITIKA**  
Política Social
- **DIRU KONTUEN ETA OGASUNAREN BATZORDE BEREZIA**  
Comisión Especial de Cuentas y Hacienda
- **GIZA BALIABIDEAK ETA UDAL ANTOLAKETA**  
Recursos Humanos y Organización Municipal
- **HERRITARREKIKO HARREMANAK, PARTAIDETZA ETA INFORMATIOAREN GIZARTEA**  
Atención Ciudadana, Participación y Sociedad de la Información
- **KIROLAK**  
Deportes
- **KULTURA, FESTAK ETA GAZTEDIA**  
Cultura, Fiestas y Juventud

**Bigarren.-** Era berean, Erakunde Lokalen Organizazio, Funtzionamendu eta Juridikoaren

Arautegia onetsi zuen azaroaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuaren 38. artikulua kontutan izanik, eta ikusirik talde politiko bakoitzaren bozeramaileak lehendakariari bidalitako idatzia (zeinetan batzorde bakoitzean partaideak izendatzen baitira), batzorde informatiboen konposaketa hau onartzea:

### **BERDINTASUNA**

Igualdad

Lehendakaria: Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga (EAJ-PNV)  
Bokala: Nuria Carbonell Miranda (EAJ-PNV)  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)  
Onintza Lasa Arteaga (EH BILDU)  
Maria Lasa Arruabarrena (EH BILDU)  
Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE)

### **HIRIGINTZA ETA AZPIEGITURAK**

Urbanismo e Infraestructuras

Lehendakaria: Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)  
Bokala: Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV)  
Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Ibai Iriarte San Vicente (EH BILDU)  
Maria Lasa Arruabarrena (EH BILDU)  
Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE)

### **INGURUMENA, AUZOAK, OBRAK ETA ZERBITZUAK**

Medio Ambiente, Barrios, Obras y Servicios

Lehendakaria: Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Bokala: Nuria Carbonell Miranda (EAJ-PNV)  
Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV)  
Lore Agirre Zipitria (EH BILDU)  
Ibai Iriarte San Vicente (EH BILDU)  
Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE)

### **UDALTZAINGOA, MUGIKORTASUNA ETA SEGURITASUNA**

Policía Municipal, Movilidad y Seguridad

Lehendakaria: Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)  
Bokala: Iñigo Alonso Sarasibar (EAJ-PNV)  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga (EAJ-PNV)  
Ibai Iriarte San Vicente (EH BILDU)  
Igor Ezenarro Balda (EH BILDU)  
Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE)



### **EKONOMIAREN SUSTAPENA**

Fomento Económico

Lehendakaria: Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)  
Bokala: Jokin Azkue Arrastoa(EAJ-PNV)  
Iñigo Alonso Sarasibar (EAJ-PNV)  
Ibai Iriarte San Vicente (EH BILDU)  
Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez (EH BILDU)  
Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE)

### **MERKATARITZA, FERIAK ETA TURISMOA**

Comercio, Ferias y Turismo

Lehendakaria: Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)  
Bokala: Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)  
Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Igor Ezenarro Balda (EH BILDU)  
Lore Agirre Zipitria (EH BILDU)  
Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE)

### **HIZKUNTZA POLITIKA ETA HEZKUNTZA**

Política Lingüística y Educación

Lehendakaria: Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV)  
Bokala: Nuria Carbonell Miranda (EAJ-PNV)  
Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)  
Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez (EH BILDU)  
Onintza Lasa Arteaga(EH BILDU)  
Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE)

### **GIZARTE POLITIKA**

Política Social

Lehendakaria: Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)  
Bokala: Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)  
Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)  
Onintza Lasa Arteaga (EH BILDU)  
Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez (EH BILDU)  
Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE)

**DIRU KONTUEN ETA OGASUNAREN BATZORDE BEREZIA**

Comisión Especial de Cuentas y Hacienda

Lehendakaria: Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)  
Bokala: Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV)  
Iñigo Alonso Sarasibar (EAJ-PNV)  
Lore Agirre Zipitria (EH BILDU)  
Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez (EH BILDU)  
Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE)

**GIZA BALIABIDEAK ETA UDAL ANTOLAKETA**

Recursos Humanos y Organización Municipal

Lehendakaria: Iñigo Alonso Sarasibar (EAJ-PNV)  
Bokala: Nerea Letamendia Beloso (EAJ-PNV)  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)  
Lore Agirre Zipitria (EH BILDU)  
Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez (EH BILDU)  
Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE)

**HERRITARREKIKO HARREMANAK, PARTAIDETZA ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEA**

Atención Ciudadana, Participación y Sociedad de la Información

Lehendakaria: Joseba Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)  
Bokala: Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)  
Ibai Iriarte San Vicente (EH BILDU)  
Peio Etxabe Zabala (EH BILDU)  
Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE)

**KIROLAK**

Deportes

Lehendakaria: Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE)  
Bokala: Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga (EAJ-PNV)  
Nuria Carbonell Miranda (EAJ-PNV)  
Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Peio Etxabe Zabala (EH BILDU)  
Maria Lasa Arruabarrena (EH BILDU)

## **KULTURA, FESTAK ETA GAZTEDIA**

Cultura, Fiestas y Juventud

Lehendakaria: Nuria Carbonell Miranda (EAJ-PNV)  
Bokala: Nerea Letamendia Bellosa (EAJ-PNV)  
Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)  
Igor Ezenarro Balda (EH BILDU)  
Maria Lasa Arruabarrena (EH BILDU)  
Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE)

Batzordeetan talde politiko bakoitzaren botoa, Osoko Bilkuran duten ordezkariaren araberakoa izango da.

**3.- Organu kolegiatuen udal ordezkariak izendatzea: Mankomunitateak, Erakunde autonomoak, Sozietate merkantilak, Asoziazioak, e.a.**

**3.- Nombramiento representantes de la Corporación en los Órganos Colegiados: Mancomunidades, Organismo Autónomos, Sociedades Mercantiles, Asociaciones, etc.**

*Partehartzeak:*

... *Ibai Iriarte San Vicente, EH BILDU: "Tolosaldea Garatzen izendapen inguruan, zuek orain dela 4 urte egin zenuten bezala, eskatu nahi genuke Administrazio kontseiluan leku bat bozka ez izan arren, bozka udalarena izan behar duelako. Lau urte honetako jarraipena emateko eta laguntzeko ahotza edukitzea egokia da. Beraz, Tolosaldea Garatzen martxan jartzen denean, Administrazio kontseiluari proposamen hau egitea nahi genuke: bozka gabe, baina ahotsarekin, Tolosako oposizioko talde nagusiak leku bat izatea.*

*Aralarreko Parke Naturalaren Administrazio Patronatuaren izendapenari dagokionez, aurreko legealdiaren bezala, gure proposamena Bedaioko auzo elkarteko kidea izendatzea da, beraiek gertutik bizitzen dutelako. Oso argi daukate zeintzuk diren beharrak eta aukerak.*

*Bestalde Paper Eskolaren inguruan argitzea nahi genuke, dokumentazioan orain dela 4 urte ez bezala, 2 elkarteetarako daudelako: "Paper Eskola"rako 2 ordezkari eta bestetik "Tolosako Paper Institutu Proiektua Garatzeko Asoziazioa"rako ordezkari bat.. Orain arte bateratuta zeuden, jakin nahi genuke zein da zein edo zer.*

*Horretaz aparte, faltan botatzen ditugu, Orixe institutua, Hizkuntza Eskolakoak ez daude izendatuta, eta Samaniego ikastetxeko ordezkaria bai.*

*UEMA inguruan Udal gobernua zer asmo dituen jakin nahi genuke."*

*Udal idazkariak erantzun du Paper eskolaren inguruan begiratu eta, horrela badagokio, zuzenduko dela proposamena. Beste ordezkarien kasuetan, berriz, dekretu bidez egingo dela.*

... *Olatz Peon Ormazabal Alkateak: "Tolosaldea Garatzeneko administrazio kontseilua osatzen den bezain pronto egingo dugu proposamena.*

*Aralarreko Parke Naturalaren Administrazio Patronatuko ordezkariak egindako proposamenarekin ados nago eta auzo elkartearekin hitz egingo dugu. Auzoetako batzordea gaurtik aurrera jarriko da martxan, hasiko da auzo elkarte guztiekin hitz egiten eta mahai gainean jarriko dugu proposamen hori.”*

Ondoren, eta kontuan izanik Erakunde Lokalen Organizazio. Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onetsi zuen azaroaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuaren 38 eta 58 artikulua diotena, Udalbatzak, EAJ-PNV (9) eta PSE-EE (1) alderdien aldeko botoekin, EH BILDU (7) alderdiaren abstentzioarekin, gehiengoz,

## **ERABAKI DU**

**Lehenik.-** Tolosako Udalak parte hartzen duen organo kolegiatu hauetan ordezkari hauek izendatzea:

### **ARALARREKO PARKE NATURALAREN ADMINISTRAZIO PATRONATUA**

Titularra: Patxi Amantegi Zubiria(EAJ-PNV)

### **TOLOSALDEA GARATZEN**

Titularra: Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)  
Ordezkoa: Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)

### **TOLOSA GASA, S.A.**

Lehendakaria: Olatz Peon Ormazabal (alkatea)  
Bokalak: Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV)  
Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez (EH BILDU)  
Onintza Lasa Arteaga(EH BILDU)  
Oscar Hugo Renedo Nieto(PSE-EE)

Idazkaria: Paulino Alonso Eraso

**TOLOSA LOTZEN, S.A.**

Lehendakaria: Olatz Peon Ormazabal (alkatea)  
Bokalak: Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV)  
Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)  
Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Nuria Carbonell Miranda (EAJ-PNV)  
Iñigo Alonso Sarasibar (EAJ-PNV)  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga (EAJ-PNV)  
Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)  
Ibai Iriarte San Vicente (EH BILDU)  
Lore Agirre Zipitria (EH BILDU)  
Onintza Lasa Arteaga (EH BILDU)  
Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez (EH BILDU)  
Igor Ezenarro Balda (EH BILDU)  
Maria Lasa Arruabarrena (EH BILDU)  
Peio Etxabe Zabala (EH BILDU)  
Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE)  
Idazkaria: Garikoitz Lekuona Izeta

**TOLOSA LANTZEN, S.A.**

Lehendakaria: Olatz Peon Ormazabal (alkatea)  
Lehendakariordea: Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Bokalak: Nuria Carbonell Miranda (EAJ-PNV)  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga (EAJ-PNV)  
Peio Etxabe Zabala (EH BILDU)  
Koldo Arsuaga Artola (EH BILDU)  
Oscar Hugo Renedo Nieto (PSE-EE)  
Idazkaria: Jose Luis Unanue Ugalde

**ERRETENGIBEL**

Lehendakaria: Olatz Peon Ormazabal (alkatea)  
Lehendakariordea: Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Bokalak: Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV)  
Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)  
Karlos Izagirre (EH BILDU)  
Igor Ezenarro Balda (EH BILDU)  
Xabier Maiza Aizcorbe (PSE-EE)  
Idazkaria: Angel Uranga Txurruka

### **IURREAMENDI EGOITZA**

Lehendakaria: Olatz Peon Ormazabal (alkatea)  
Bokalak: Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)  
Lore Agirre Zipitria (EH BILDU)  
Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE)

### **PAPER ESKOLA.**

Ordezkarria: Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV)  
2. Ordezkarria: Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez (EH BILDU)

### **SAMANIEGO ESKOLA KONTSEILUA.**

Ordezkarria: Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV)

### **UR KONSORTZIOA**

Ordezkarria: Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

### **ZAZPITURRI, S.A.**

Ordezkarria: Olatz Peon Ormazabal(EAJ-PNV)

### **TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA**

Ordezkarria: Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV) (ordezkoa)

### **APATTARREKAKO INDUSTRIGUNEA, S.L.**

Ordezkarria: Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

**TOLARGI, S. L.**

Lehendakaria: Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)  
Bokalak: Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)  
Iñigo Alonso Sarasibar (EAJ-PNV)  
Ibai Iriarte San Vicente (EH BILDU)  
Jose Luis Vilanova Alonso-(PSE-EE)

Idazkaria: Karmele Contreras Goikoetxea

**TOLOSALDEKO GANADU HILTEGI KUDEATZEKO MANKOMUNITATEA.**

Ordezkarria: Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)  
Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)

**TOLOSALDEKO MENDI NEKAZARITZA ELKARTEA.**

Ordezkarria: Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)

**Bigarren.-** Atal honetan aipatutako enpresei dagokionez, hain zuzen, Tolosa Gasa, Tolosa Lantzen, Erretengibel, Tolargi, Tolosa Lotzen:

- a) Orain arte izendatuta daudenei kontseilari kargua utziaraztea.
- b) Izendatuek onartzen dituzte esleitu zaizkien karguak eta aitortzen dute, batetik, betetzen dituztela estatutu sozialek kontseilari izateko jartzen dituzten betebeharrak eta, bestetik, indarrean dagoen legediak aurreikusten dituen ezgaitasun edo bateraezintasun kausatan ez daudela sartuta.
- c) Tolosa Lantzen, S.A., sozietate kasuan, lehendakaria (Olatz Peon Ormazabal) ahalmentzea finantza entitateetan funtsak erabiltzeko, eta haren ordezko, sozietateko bokala den Patxi Amantegi Zubiria.

**Hirugarren.-** Dagokion entitateko lehendakariari ahalmena ematea beharrezkoak diren agiri eta eskritura publikoak egilesteko, izendapenak Merkataritza Erregistroan inskribatu arte

**4.- Alkate dekretu hauen berri ematea:**

- **Gobernu Batzordeko partaideen izendapena.**
- **Alkateordeen izendapena**
- **Batzorde informatiboetako lehendakarien izendapena.**

- **Gobernu Batzordeko partaideen izendapena.**

1115/2015 Alkatearen dekretua. Honek honela dio:

“Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak emana.

*Azken Udal-Hauteskundeen ondorioz, 2015eko ekainaren 13an Udala eratu da eta beharrezkoa ere da antolaketa berriari ekitea, Gobernu batzar berria eratuz; guztia Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen duen legeak antolaketari buruzko 4.1 a) artikuluan xedatzen duena eta Azaroaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuak Entitate Lokaletako Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoa onesten duenak, 46. Artikuluko 1. Zenbakian eta 52 artikuluan xedatutakoa betez.*

*Bestalde, lehen aipaturiko legeak 20.1 b) artikuluan eta 23. ean diotenaren arabera, Tolosako Udalak ezinbestekoa du Gobernu batzordea eratzea, herriak 5.000 biztanle baino gehiago baititu.*

*Horregatik, Alkatetza honek, indarrean dagoen legediak aurreikusitako ahalmenez baliaturik,*

**ERABAKI DU**

**Lehenik:** *Tolosako Udal Gobernu batzordea eratzea, partaide hauek izendatuz:*

*Lehendakari: Alkatea*

*Bokalak: Patxi Amantegi Zubiria*

*Nerea Letamendia Beloso*

*Jokin Azkue Arrastoa*

*Iñigo Alonso Sarasibar*



**Bigarren:** *Gobernu batzordearen saioak Alkatezako aretoan astero egitea, astelehenean, goizeko 8:00etan. Dena den, Alkateak, arrazoituz, ahalmena izango du egunez eta orduz saioa aldatzeko.*

**Hirugarren:** *Alkateak ahalmena izatea abuztuan, Eguberrietan eta Aste Santuan Gobernu batzordearen saio egunak aldatzeko.*

**Laugarren:** *Gobernu batzordearen helburuak finkatzea eta funtzionamendurako arauak xedatzea, honela:*

Helburuak:

- *Alkateari laguntzea bere ahalmenez baliatzeko orduan; gobernu lanen koordinazioa; alkateak edo Udalbatzak delegatzen dizkion ahalmenez baliatzea; eta legeak berak ematen dizkionak.*

Funtzionamendu arauak:

- *Ohizko nahiz aparteko bilera deialdiak hogeita lau ordu aurretik egingo dira. Ohizko bilkura deialdia pertsonalki egingo zaie batzordekideei. Aparteko eta presako bileren kasuan, gai zerrendari ekin aurretik, bileraren premia erabaki behar du Batzordeak, eta erabakia gehiengoak hartzen duena izango da.*
- *Deialdiarekin batera banatuko da gai zerrenda.*
- *Zinegotzi guztiek jasoko dute bilera aktaren kopia bat.*
- *Gaien espediente osoa Idazkaritzaren eskuetan egon behar du deialdi bezperan. Erabaki proposamen egin aurretik, hartarako beharrezkoak edota oinarritzkoak diren dokumentuak eta txostenak agertuko dira espedientearekin batera; eginbehar hori, espediente bakoitzaren ardura duen funtzionarioak beteko du.*
- *Batzordeari gastu proposamena egiten bazaio, nahitaezkoa izango da Kontuhartzaitzak egindako aurrekontu izendapena aurkeztea, proposamenaren bideragarritasuna egiaztatu ahal izateko.*
- *Deialdia egin eta Gobernu batzordea elkartu bitartean, zerrendako gaien espedienteak batzordekideen eskura egongo dira Idazkaritzan.*
- *Batzordekideen gehiengo absolutuak agertu behar du Gobernu batzarra eratzeko. Quorum-ik ez badago, bigarren deialdian eratuko da. Hura handik ordubetera egingo da, eta hiru kiderekin nahikoa izango da Batzarra eratutzat jotzeko.*
- *Gobernu Batzarraren bilera deliberatzailea bada, ezin izango du erabakirik hartu. Eztabaiden emaitzak irizpen modura jasoko dira.*
- *Gobernu Batzarraren bozketa bidez hartuko ditu erabakiak, Udalbatzak, alkateak edo legeriak emandako ahalmenez baliatzen denean.*

- *Udalbatzarrak emandako ahalmenez jarduten duenean, dagokion batzorde informatzailearen txostena eduki behar du aldez aurretik.*
- *Alkateak Gobernu Batzordearen bileretara deitu ahal izango ditu batzordekide ez diren zinegotziak eta udal pertsonala, informazio edo elementu gehiago eduki ditzaten erabakiak hartzeko orduan.*

**Bosgarren:** *Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Ediktu Taulan argitaratzea.*

**Seigarren:** *Udalbatzari ere ebazpen honen berri ematea, Entitate Lokaletako Antolaketa, Funtzionamendu eta erregimen Juridikoak onesten duen legeak 38. Artikuluak xedatutakoa betez.*

*Aldi berean, departamentuburu, batzordetako idazkari eta batzordeburuei ere dekretua jakinaraztea”.*

**- Alkateordeen izendapena**

1021/2015 Alkatearen dekretua. Honek honela dio:

*“ OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak emana.*

*Azaroaren 28ko 2568/1986 Erregu Dekretuak Entitate Lokaletako Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa Onesten duenak, 46. Artikuluko 1. zenbakian eta 52. artikuluan xedatutakoa betez,*

**ERABAKI DU**

**Lehenik:** *Alkateordeak zinegotzi hauek izendatzea:*

*Lehenengo alkateordea: Patxi Amantegui Zubiria  
Bigarren alkateordea: Nerea Letamendia Belloso  
Hirugarren alkateordea: Jokin Azkue Arrastoa*

**Bigarren:** *Ebazpen hau zinegotzi interesatuei jakinaraztea, Plenoari honen berri ematea eta Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzea.*

**Hirugarren:** *Dekretu hau 2015eko ekainaren 18an sartuko da indarrean.*

*Tolosan, 2015eko ekainaren 18an”.*

**- Batzorde informatiboetako lehendakarien izendapena.**

1116/2015 Alkatearen dekretua. Honek honela dio:

*“OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak emana*

*Kontuan izanda, alkateak ahalmena duela batzorde informatiboen Lehendakariak izendatzeko, hura baita batzorde hauen lehendakari titularra*

## **ERABAKI DU**

**LEHENIK:** *Batzorde informatiboen lehendakariak izendatzea:*

### **BERDINTASUNA**

*Igualdad*

*Lehendakaria: Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga (EAJ-PNV)*

### **HIRIGINTZA ETA AZPIEGITURAK**

*Urbanismo e Infraestructuras*

*Lehendakaria: Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)*

### **INGURUMENA, AUZOAK, OBRAK ETA ZERBITZUAK**

*Medio Ambiente, Barrios, Obras y Servicios*

*Lehendakaria: Patxi Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)*

### **UDALTZAINGOA, MUGIKORTASUNA ETA SEGURTASUNA**

*Policía Municipal, Movilidad y Seguridad*

*Lehendakaria: Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)*

### **EKONOMIAREN SUSTAPENA**

*Fomento Económico*

*Lehendakaria: Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)*

### **MERKATARITZA, FERIAK ETA TURISMOA**

*Comercio, Ferias y Turismo*

*Lehendakaria: Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)*

**HIZKUNTZA POLITIKA ETA HEZKUNTZA**  
*Política Lingüística y Educación*

*Lehendakaria: Jokin Azkue Arrastoa (EAJ-PNV)*

**GIZARTE POLITIKA**  
*Política Social*

*Lehendakaria: Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)*

**DIRU KONTUEN ETA OGASUNAREN BATZORDE BEREZIA**  
*Comisión Especial de Cuentas y Hacienda*

*Lehendakaria: Begoña Tolosa Mendía (EAJ-PNV)*

**GIZA BALIABIDEAK ETA UDAL ANTOLAKETA**  
*Recursos Humanos y Organización Municipal*

*Lehendakaria: Iñigo Alonso Sarasibar (EAJ-PNV)*

**HERRITARREKIKO HARREMANAK, PARTAIDETZA ETA INFORMAZIOAREN  
GIZARTEA**  
*Atención Ciudadana, Participación y Sociedad de la Información*

*Lehendakaria: Joseba Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)*

**KIROLAK**  
*Deportes*

*Lehendakaria: Jose Ignacio Asensio Bazterra*

**KULTURA, FESTAK ETA GAZTEDIA**

*Cultura, Fiestas y Juventud*

Lehendakaria: Nuria Carbonell Miranda (EAJ-PNV)

**Bigarren:** Batzorde informatiboen lehendakariak izango dituzten ahalmenak xedatzea, horrela:

*Dagokion Batzorde Informatiborako deialdia egin eta Batzordeko mahaiburu izan.*

*Bere saileko espedienteak abian jarri eta bultzatu, Udalbatzak edo Gobernu Batzordeak haiei buruzko erabakiak hartzeko.*

*Bere saileko gaiak Gobernu Batzordearen eta Udalbatzaren gai-zerrendan sartzeko proposatu.*

*Udal Aurrekontuetan bere sailekoak diren programak gauzatzeko urratsak eman eta bultzatu.*

*Bere eskuduntzako gaien inguruan egindako kudeaketen berri eman Batzorde Informatiboari eta Gobernu Batzordeari.*

**Hirugarren:** *Delegatze hau indarrean egongo da Korporazio honen agintaldiak irauten duen bitartean. Dena dela, delegatze hau agintaldia amaitu baino lehen aldatu edo bertan behera gera daiteke, horretarako legeak jartzen dituen baldintzak bete eta gero.*

**Laugarren:** *Honen berri ematea aipatutako zinegotziei. Delegatutako eskuduntza onartutzat joko da, baldin eta hurrengo hogeita lau orduetan ez bada ezer aurka esaten edo delegatzeaz baliatzen bada. Era berean, udal zerbitziburuei ere emango zaie honen berri, jakinaren gainean egoteko eta dagozkion ondorioetarako.*

*Tolosan, 2015eko uztailaren 3an*

**5.- Pertsonal ebentualaren ezaugarriak eta lan sariak xedatzea.**

**5.- Determinación del número, características y retribuciones del personal eventual.**

Maiatzaren 24ko Udal-Hauteskundeak burutu eta Udala osatutzat jo ondoren, Erakunde Lokalen Oinarriak Arautzen dituen Legeak 104.1 artikuluan dioenari jarraituz, behin behineko langileen kopurua, lanpostuen ezaugarriak eta ordainsariak xedatu behar dira, jarraian Alkateak dagokion izendapenak egin ahal izateko.

Horrela, lehen aipatutako legeak xedatutakoa betez eta Alkatearen proposamenaz, Udalbatzak, EAJ-PNV (9) eta PSE-EE (1) alderdien aldeko botoekin, eta EH BILDU (7) abstentzioarekin, gehiengoz,

## ERABAKI DU

**Lehen.-** Udal honetako behin-behineko (ebentual) langilearen kopurua, lanpostuaren ezaugarriak eta ordainsariak xedatzea, honela:

KOPURUA	EZAUGARRIAK		ORDAINSARIAK
	IZENA	DEDIKAZIOA	
1	Alkatearen Idazkaria	Lanaldi osoa	38.511,82 euro/urtean. Gehi hirurtekoak

Ordainsariak 2015eko ekainaren 13an sartuko dira indarrean.

- Eginkizunak Alkatearen idazkari pertsonalarenak izango dira.
- Laneguna osoa eta bulegoetako ordutegia izango du, konkretuki idazkaritzako arloari dagokiona, kasu berezietan beste ordutegi bat jarri diezaioke larrik alkateak.
- Hirurtekoak kontuan hartuko zaizkio eta Udal funtzionariei dagozkien eskubide eta bete behar guztiak izango ditu.

KOPURUA	EZAUGARRIAK		ORDAINSARIAK
	IZENA	DEDIKAZIOA	
1	Komunikazio arduraduna	Lanaldi osoa	39.375,89 euro/urtean.

**Bigarren.-** Sortutako behin-behingo lanpostua hauek lanpostuen zerrendan sartzea, lehen aipatzen den baldintza eta ezaugarriekin.

**Hirugarren:-** Erabaki honen berri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

*Partehartzea:*

... *Ibai Iriarte San Vicente EH BILDUko zinegotziak galdetu du Komunikazio arduraduna nor izango den.*

... *Alkateak erantzun dio lanpostua sortu dela baina nor izango den erabaki gabe daukatela.*

**6.- Erabateko dedikazioz aritu behar dutenen eta gainontzeko Korporazioko partaideen asistentzi, indemnizazio eta ordainsariak**

**6.- Régimen retributivo y dedicación de los miembros de la Corporación con dedicación exclusiva e indemnizaciones y dietas del resto de**

xedatzea.

los miembros.

Partehartzeak.

- ... Ibai Iriarte San Vicente, EH BILDU: “Pozten gara: duela 4 urte EUDELk jartzen zituen irizpideen aplikatzearen alde azaltzen zineten, irizpide berdinak izatea erakunde guztietan. Gure taldearen iritzia izanda aurreko gure lanetan genuen soldata parekatzea udalean, ordainsariak handitu gabe. Pozten gara EUDELEko Irizpide horiei bizkar ematea eta zentzuzko soldatak jarri izana. Hala ere, guk lau urte hauetan hiru lagun nola ibili garen ikusita eta errespetuz, iruditzen zaigu herritarrekiko harremana zuzena garatu nahi bada, partehartze prozesuetan egon nahi bada, ez teknikariak soilik, zuek ere egonez, aurrez aurre jendeari erantzuten, nahi bada garapena eskualdeko erakunde horretan egon eta nahi bada orduak eskaini, iruditzen zaigu bi lagun gutxi direla. Abstenitu gara denetan, hartu dituzuen erabakiekin ados egon edo ez. Zuek zarete Udal gobernua, zuek dakizue zergatik hartzen dituzuen erabakiak eta zentzu horretan iruditzen zaigu denbora bat eman behar zaizuela jakiteko erabaki zuzenak diren edo ez. Zuek dena kontra egin zenuten orain dela 4 urte; guk ez daukagu jarrera hori, margena eman behar zaizuelako. Guk horrela ez dugu egingo. Baina 2 pertsona lanaldi osoan, dagoen lan karga honekin animo, nahiz eta beste kideek lagundu. Bestalde, zorionak, soldataren inguruan hartu duzuen erabakiarengatik, irizpideen aldaketengatik. Herriak eskertzen du. Azkoitia eta Beasaingo irudiak nahiko itsusiak izan direla iruditzen zaizkigu, garai honetako soldatak ez direlako kontuan izan, langabezi tasa, prekaritatea eta, jendearen eta gizartearen orokorrean dagoen egoera. Beraz, zoriendu.”
- ... Alkatea: “Lehenik eta behin, adierazi orain dela 4 urte egin genituen adierazpenak berresten ditugula oraindik ere. Hartu dugun erabakiaren argibidea eskatzen zenuen: erabateko dedikazioaz ari behar diren ordainsariak eta korporazioko asistentzi, indemnizazioak eta puntu horretan erabaki ditugunak, hasiera batean, arautu egiten dira, Estatuak lehenik, baina Erkidegoak baita ere eskumena dauka arautzeko. Orduan, EUDELEk egiten zuena zen irizpide batzuk markatu, arauak ez zirenak. Orain, Gipuzkoa Foru Aldundiak araua onartu du, aurreko asteartean. Gure iritziz, ez da logikoa lau urtero politikoki erabiltzea gai hau gobernatzea tokatzen zaion alderdia astintzeko. Nire ustetan, irizpideak objetiboak izan behar dute, irizpide asko izan daitezke: erabateko dedikazioz dauden horien prestakuntzaren arabera, non adibidez, alkateak izan dezake ordainsari txikiagoa berarekin batera lanean ari den pertsona baino; zuek erabaki zenuten bezala aurreko lanean izandako ordainsariaren arabera; bakoitzak duen egoeraren pertsonalaren arabera edo legealdi pasa ondoren bakoitzak egin duen kudeaketaren arabera. Izan daitezke mila irizpide baina izan behar dute objetiboak: herriak duen biztanlearen eta kudeatzen duen aurrekontuaren arabera. Guk, gaur, hau onartuko dugu 2015ean horrela onartu zelako eta urtea bukatu arte horrela jarraitzea egokia delako; eta bitarte horretan hartuko dugu denbora bat. Gure asmoa da Gardentasun batzorde horretara gaia eramatea, irizpideak jartzeko, beti ere arauak ezartzen dituen gehiengoan barruan. Orduan, Tolosak jakinik eskualdeko buru izanda eta ikusirik beste inguruko Udalerrriak hartu dituzten erabakien arabera, proposatzen dut gaia batzorde horretan tratatzea eta denon artean adostea. Baita esan, ordainsariak ez dutela bakarrik izan behar gobernu taldearentzat, baizik eta oposizioak jaso duen herritarren babesaren arabera ere izan behar duela, bere lana egoki kudeatu ahal izateko. Gure proposamena da Gardentasun batzorde horretara eramatea gaia eta 2016ko aurrekontuetan batzorde horretan erabakitakoa onartzea”.

.. *Ibai Iriarte San Vicente, EH BILDU*: “Ulertzen dut 2016ko aurrekontuetan hau da, aurtengo azarorako, aurrekontuak egiten ari ditugunerako, zehaztu beharko litzakeela gaia. Hau da, hemen planteatzen ari zaretena, gaur hartzen den erabakia, soilik urte amaiera arte eragiten diola. Ez genekien, orain arte ez garelako elkartu, proposamen hauek zirenik 4 urtetarako edo aldakorrak .Entzundakoaren arabera, gaur erabaki hau hartzen da 2016rako erretribuzioen zenbatekoa zehaztu bitartean.”

... *Alkatea*: “Gure iritzia ez da aldatzen; gaia kudeatzeko era diferente bat aurkeztu dugu eta nahi genuke adostasunez ateratzea eta ez erabiltzea liskar politiko modura, inori ez diolako mesederik egiten. Liberatuen kopurua araututa dago eta beharraren arabera erabakitzen da. Hasiera batean bi liberatuekin pentsatzen dugu nahikoa izango dela gure proiektuak aurrera eramán ahal izateko. Ezinean ibiltzen bagara Partaidetza batzorde horretara eramango dugu behar hori.”

Maiatzaren 24ko Udal-Hauteskundeak burutu eta Udala osatutzat jo ondoren, zuzena da Udal-talde politiko bakoitzeko diru kopuruak eta erabateko eta zatikako dedikazioa duten karguak zehaztea.

Hortaz, alkatearen proposamena onartuz eta Erregimen Lokaleko Oinarrien Legeko 75. artikulua xedatutakoa betez, EAJ-PNV (9) eta PSE-EE (1) alderdiko aldeko botoekin, eta EH BILDU (7) alderdiko abstentzioarekin, Udalbatzak, gehiengoz,

## ERABAKI DU

### Lehen:

a) Onartzea dedikazio eskusiboko karguak eta berauen urteko urdainsariak, honela:

KARGUA	ORDAINSARIA
Alkatea liberatua	44.000 euro urtean
Alkateorde liberatua	44.000 euro urtean

Atal honetan jarritako kantitate hauek 2015eko ekainaren 13tik aplikatzea alkateari eta uztailaren 1etik alkateordeari.

**Bigarren:** Beren karguak dedikazio eskusibo edo partziales betetzen ez dituzten udalbazkideentzat indemnezio gisa ondorengo kopuruak onartzea, parte hartzeagatik osoko bilkuretan, Gobernu Batzarrean, udal batzorde informatzaileetan eta gainerako udal enpresa edo entitate publikoetan titular zein ordezkio bezala —behar bezala baimenduta—, aldi berean ez diren heinean:

Batzordeetako lehendakariak	
Batzordea edo Gobernu Batzarrean parte	182,52 €



APARTEKO OSOKO BILKURA  
2015.07.07

hartzeagatik	
Osoko Bilkuran parte hartzeagatik	273,08 €
Urteko, gehienez	8.752,80 €

<b>Zinegotziak</b>	
Batzordea edo Gobernu Batzarran parte hartzeagatik	130,37 €
Osoko bilkuran parte hartzeagatik	195,06 €
Urteko, gehienez	6.252 €

**Hirugarren:** Onartzea talde politikoentzako asignazio ekonomikoak:

<b>Talde politikoak</b>	
Talde bakoitzeko eta hileko	490,29 €
Zinegotzi bakoitzeko eta hileko	150,85 €

**Laugarren:** Ezartzea erabaki honetan finkatutako ordainsariak Euskal Autonomia Erkidegoko KPlaren arabera aztertuak izango direla eta eragina urtarilaren 1etik aurrera izango dela.

**Bostgarren:** Ezartzea udalbazkide guztiak indemnizatuak izateko eskubidea izango dutela karguan aritzeak sortutako gastuengatik, Euskal Autonomia Erkidegoko araudian jasotakoa.

Besterik gabe, gaueko bederatzietan bilera Sin más asuntos que tratar, siendo las nueve de la bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo naizen aldetik, ziurtatzen dut. cual, yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA